

## BESTELAKO XEDAPENAK

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

## 86

*EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 2koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egingo dituzten aholkularitza-entitate homologatuak kontratatzeako, enpresei eta entitate pribatuei 2012an diru-laguntzak emateko deialdia arautzen duena.*

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea benetakoa eta eraginkorra Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintza, ekonomia, kulturgintza eta gizartearen eremu guztietan. Emakunderen helburuak dira, beraz, sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea; berdintasun hori, izatez eta zuzenbidez, bere osotasunean garatzeko dauden oztopoak kentzea; eta emakumea baztertzeko edozein modu deuseztatzea Euskadin.

Helburu horiek lan-eremuan lortu ahal izateko, enpresek eta entitate pribatuek aktiboki parte hartu behar dute, alde batetik, emakumeek eta gizonek enplegua berdintasunez lortuko dutela eta lan-baldintza egokietan lan egingo dutela bermatzeari dagokionez, eta bestetik, euren produktuek eta zerbitzuek emakumeen zein gizonen beharrei eta interesei erantzuten dietela bermatzeari dagokionez.

Horrek duen garrantziaz jabeturik, eta ikusirik beharrezkoa dela enpresei diagnostikoak egiteko eta barneko berdintasun-planak ezartzeko laguntza teknikoa emango dieten aholkularitza-entitate espezializatuak egotea, 2002. urteaz geroztik Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen aholkularitza-enpresei prestakuntza ematen eta horiek egiaztatzen hasi zen, Europako Gizarte Funtzaren laguntzarekin. Eta hori guztia burutzeko, homologazio-prozesu bat ireki zen, jarduteko planteamenduetan gutxienez eduki beharreko kalitate-maila eta homogeneotasuna bermatzeko. Une honetan, zenbait aholkularitza-entitate homologatuak jada laguntza teknikoa eskain diezaiekete hala eskatzen duten enpresa eta entitate pribatuei.

Ebazpen honen oinarri juridikoa Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuaren 2.2.m) artikuluan dago. Artikulu horren arabera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitekoak dira, besteak beste, enpresa eta erakundeentzako laguntzak eta bestelako sustapen-neurri batzuk ezartzea, horiek baliabide material eta ekonomikoz eta giza baliabidez hornitzeko, eta hartara, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak, programak eta jarduerak egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Ebazpen hau enpresa edo entitate pribatuek aholkularitza-entitate homologatuak kontratatu ditzaten sustatu eta laguntzeko sortu da, horrela enpresek laguntza teknikoa jasoko baitute emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko, bai barne-antolamendurako bai eskaintzen dituzten zerbitzu edo produktuetarako. Eta ebazpen honen bidez, hain justu ere, xede horretarako diru-laguntzak arautzen dira. Deskribatutako helburu guztiak kontuan hartuta, diru-laguntzen deialdi hau arautuko dugu, publizitate-, lehiakortasun- eta objetibotasun-irizpideen arabera. 2011. urteko deialdiko baldintzei eutsi zaie; horrenbestez, onuradun bakoitzak gehienez ere jasoko duen zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da; laguntzak bateragarriak izango dira xede eta helburu bererako ematen diren beste batzuekin edozein dela ere laguntzaren izaera eta erakunde emailea; laguntzaren zenbatekoa gehienez ere diruz

lagundutako jardueraren kostuaren % 50ekoa izatearen muga ez zaie aplikatuko irabazi-asmorik gabeko erakundeei. Erakunde horiek dira, oro har ezarri denaren arabera, onurak titular edo partaideen artean banatzen ez dituzten entitateak, eta produkzioan edo ondasun- eta zerbitzu-banaketan lortutako irabaziak edo soberakinak entitateen xedeak betetzeko inbertitzen edo bideratzen dituztenak.

Deialdi honetan nabarmentzekoa den beste berrikuntza bat hau da: entitateek egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan eduki behar dute, edo bestela, lanlekuak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egon behar dira; horien zuzendaritza- eta administrazio-organoei antolamendu-aldaketak egiteko kudeatze-gaitasuna eta autonomia nahikoa izan behar dute, diru-laguntzen programako berdintasun-alorreko jarduera-planak bete ahal izateko. Orain arte eskatu izan den betekizuna, entitatea Euskal Autonomia Erkidegoan egotearena, ez da nahikoa izan, lankidetzaren aitortzea ematerakoan, entitatea EAetik zuzentzen dela bermatzeko, eta entitate onuradunak aitortzen hori lortzeko konpromisoa hartu behar duenez, emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea izeneko figura sortu zuen azaroaren 8ko 424/1994 Dekretua aldatzeari buruz Erakunde honek proiektatu duen ildoan, berme hau homogeneizatu nahi da: EAEko lan-zentroetako zuzendaritza- eta kontrol-organoei berdintasunaren alorreko jarduera-planen ezarpenean eragin ahal izatea. Halaber, diru-laguntzaren zenbatekotik beren-beregi kendu da Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), betiere berreskuratzeko baldin bada; diruz lagundutako jardueraren kostu guztia justifikatzea eskatzen da ez bakarrik Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak finantzatzeko zenbatekoa, diru-laguntzak jardueraren kostuaren % 50 ez gainditzeko betekizuna konplitzen den kontrolatzeko; eta azkenik, gastuak justifikatzeko azken eguna 2012ko abenduaren 31 izango da.

Prozedurari dagokionez, berrikuntza hau dugu ekitaldi honetan: izapidetze telematikoa entitate interesdunentzat. Horiek prozedurako izapideak bide elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta egin behar dituzte, alor honetan aplikatzeko den araudiaren arabera. Horretarako, izapide modu horrek eskatzen dituen egokitzapenak sartu dira ebazpenaren testuan. Horren haritik, honako hauek dira aplikatzekoak: abenduaren 18ko 232/2007 Dekretua, administrazio-prozeduretan bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duena; apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolamendu eta funtzionamenduari buruzkoa; eta 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariarena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezartzen duen dokumentua onartzeko dena. Zehazki, abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuaren 4.4 artikuluan ezartzen denez, administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez bakarrik komunikatzea nahitaezkoztat joko da baldin eta interesdunak pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen taldeak badira eta, euren gaitasun ekonomiko edo teknikoak, jarduera profesionala edo egiaztatutako bestelako arrazoiak direla-eta, beharrezko bitarteko teknologikoetara sartzea eta horiek eskuratzea bermatuta badaukate, eta hori gertatzen da, hain zuzen ere, deialdi honetan.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean jasotako izapideak arindu egin dira deialdi honetan: organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatu dezake entitatearen nortasuna (hirugarren interesdunarena) eta diru-laguntza emateko eta ordaintzeko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari eta diru-laguntza emateko bete behar diren beste alderdi batzuk betetzeari buruzko ziurtapena, interesdunen erantzukizunpeko adierazpenen bidez.

Azkenik, EAEko 2012ko Aurrekontu Orokorretan kreditu nahikoa dago, deialdi hau bermatzeko.

Horrenbestez, honako hau

## EBAZTEN DUT:

## 1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen bidez enpresa eta entitate pribatuentzako diru-laguntzak arautzen dira eta diru-laguntzetarako deia egiten da, 2012. urtean aholkularitza-entitate homologatuak kontratatu ditzaten. Aholkularitza-enpresek laguntza teknikoa emango dute emakume eta gizonen arteko berdintasunerako diagnostikoak egiteko eta berdintasun-planak diseinatzeko, bai barne-antolamendurako, bai ematen dituzten zerbitzu edo produktueterako.

## 2. artikulua.– Hautaketa eta diru-hornidura.

1.– Deialdi hau lehiaketa-prozeduraz ebatziko da. Ondorio hauetarako, lehiaketa izango da diru-laguntzak emateko prozedura, non aurkezten diren eskaerak alderatzen diren, 9. artikuluan finkatutako esleipen-irizpideei jarraituz eskaera horien arteko lehentasuna finkatzeko eta diru-laguntza irizpide horien arabera balioespenik onena lortu duten eskaerei soilik emateko.

2.– Erakundearen Aurrekontuetan ondorio horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako da aurreko artikuluan adierazitako xedek lortzeko diru-hornidura. Zenbatekoa, hasieran behintzat, laurogeita hamasei mila eurokoa (96.000) izango da.

3.– Eskatutako laguntza guztien zenbatekoa kontuan hartuta, artikulua honetan esandako zenbatekoa handitu egin daiteke, betiere eskabideei buruzko ebazpena hartu baino lehen, baldin eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontu-baliabideak geratzen badira. Gora-behera hori gertatuz gero, argitara emango da Emakundeko zuzendariaren ebazpen bidez.

## 3. artikulua.– Eskatzaileak.

Betekizun hauek konplitzen dituzten enpresa eta entitate pribatuak eska ditzakete laguntzak:

a) Zuzenean edo zeharka enpresaren partaidetzarik edo kontrolik handiena administrazio publikoena ez izatea.

b) Entitatearen zuzendaritza eta administrazio-kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzea. Horretarako, egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egon behar da; bestela, lanlekuak Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar dira, eta horien zuzendaritza- eta administrazio-organoek antolamendu-aldaketak egiteko kudeatze-gaitasuna eta autonomia nahikoa izan behar dute, ebazpen honetan aipatzen diren berdintasunerako jardueraren planak bete ahal izateko.

c) Gutxienez 10 langile eta gehienez 250 edukitzea EAEko zentroetan.

d) Ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuaren arabera homologatutako aholkularitza-entitate baten laguntza teknikoa kontratatzea edo kontratatzeko konpromisoa hartzea (105/2004 Dekretua, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emango dien aholkularitza-entitateen homologazioa arautzekoa).

e) Zuzendaritzaren konpromisoa erakustea, adierazteko aurrera jarraituko duela diagnostikoa eta berdintasunerako plana egiteko hasitako lan-prozesuarekin, harik eta enpresa edo erakundea emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde bihurtu arte, 424/1994 Dekretuan eta ebazpen honen I. eranskinean jasotako moduan.

f) Zuzendaritzak prozesua dinamizatuko duen arduraduna izendatzea erakundeko langileen artean, ebazpen honen I. eranskinean jasotako moduan.

g) Laguntzak kanpoan eta barruan ustez izango duen eraginari buruzko txostena aurkeztea.

h) 2012. urterako lan-proposamena aurkeztea, non honako hauek jasoko diren:

– Diagnostikoan berrikusi beharreko alderdiak.

– Erabiliko den metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa.

– Emakume eta gizonen berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko/trebatzeko saioen programa (10 ordukoa, gutxienez).

– Ekintza-plana prestatzeko prozesua.

– Barneko lantaldea, eta taldea osatzeko irizpideak, ebazpen honen I. eranskinean jasotako moduan.

– Kronograma.

– Aurrekontua.

i) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta edukitzea.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren organo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzei dagokienez, itzulketa- edo zehapen-prozeduraren bat hasita badago eta oraindik izapidetzen ari bada, aipatu prozedura amaitzea ezinbestekoa izango da diru-laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

k) Sexu-bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala duten entitateek, zehapenean jartzen den aldian, ebazpen honetan aurreikusitako laguntzak jasotzerik ez dute izango, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera debeku horrekin zehatutakoek ere.

l) Laguntzen deialdi honetan, entitate hauek ere ez dute parte hartzerik izango: diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera kentzen dien zehapena dutenek eta laguntza horiek jasotzeko gaitasunik gabe uzten dituen lege-debekuren bat dutenek.

m) Eusko Jaurlaritzako Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egotea. «Datuen alta/Hirugarren interesduna» inprimakia. Ez da bete behar, eskatzailea Eusko Jaurlaritzaren Hirugarrenen Erregistroan alta emanda badago, non eta inprimakian aipatzen diren datuak aldatu ez diren.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.

1.– Aholkularitza-entitate homologatuak kontratatzeko izango da diru-laguntza. Aholkularitza-entitateek honako hauek giten lagundu behar die enpresei edo erakundeei:

a) Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa, barne-antolamenduri eta zerbitzuak edo produktuak eskaintzeari dagokionez.

b) Gutxienez 10 ordu ematea lan-munduan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko/trebatzeko eta horrek diagnostikoaren emaitza nagusietan duen isla erakusteko. Saio horrek diagnostikoa alderatzeko balio behar du, eta berdintasun-plana diseinatzeko oinarri izateko, eta, gutxienez, langile guztien lagin adierazgarri batentzat egingo da.

c) Berdintasun-plana diseinatzea enpresaren barne-antolamendurako eta zerbitzu edo produktuetarako.

2.– Laguntza teknikoa 2012ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte eman dezaten kontratuko dira aholkularitza-entitate homologatuak.

3.– Diruz lagun daitekeen zenbatekotik Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) kenduko da, betiere berreskuratzekoa baldin bada.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea eta izapidetze elektronikoa.

1.– Entitate interesdunek bide elektronikoak erabili behar dituzte prozedurako izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko. Eskabideak aurkezteko, euskadi.net-en egoitza elektronikoa honetan sartu behar da: [http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20030/es/contenidos/ayuda\\_subvencion/ayuda\\_subvencion/ayudas\\_empresas/es\\_ayuda/ficha\\_procedimiento.html](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20030/es/contenidos/ayuda_subvencion/ayuda_subvencion/ayudas_empresas/es_ayuda/ficha_procedimiento.html).

Eskabidea aurkeztearen osteko izapideak egiteko helbidea: [http://www.euskadi.net/mis\\_gestiones](http://www.euskadi.net/mis_gestiones).

2.– Izapidetzeari buruzko zehaztapenak helbide elektronikoa hauetan daude eskuragarri: [http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20030/es/contenidos/ayuda\\_subvencion/ayuda\\_subvencion/ayudas\\_empresas/es\\_ayuda/ficha\\_procedimiento.html](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20030/es/contenidos/ayuda_subvencion/ayuda_subvencion/ayudas_empresas/es_ayuda/ficha_procedimiento.html).

3.– Entitate eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez dezakete, nahi duten eran. Interesdunek hautatutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4.– Eskabideak aurkezteko epea 2012ko otsailaren 10ean amaituko da.

6. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta agiriak.

1.– Entitate eskatzaileak ereduaren arabeko eskabidea aurkeztu behar du, non honako erantzukizunpeko adierazpen eta adostasun hauek jasoko diren:

– Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzeko batetik, entitateak ez duela administrazio-zehapen edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egiteagatik; eta bestetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera ez zaiola debekurik ezarri zehapenak irauten duen aldiaren ebazpen honetan araututako laguntzak eskatzeko.

– Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzeko entitateak ez duela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio-zehapen edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

– Erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik ez duela jasotzen ebazpen honetan araututako diru-laguntzaren helburu bera duen laguntzarik; edo laguntza eskatu duela eta eman egin diotela.

– Erantzukizunpeko adierazpena, entitatea itzultze- edo zehapen-prozedura batean sartuta dagoen edo ez adierazteko, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta beren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan.

– Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko entitate eskatzaileak bete dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak -indarreko xedapenek ezarriak, erregelamenduz zehazten den eran.

– Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko entitatearen egoitza sozialean kudeatzen eta administratzen dela entitatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan dauden lanlekuetako zuzendaritza– eta administrazio-organoek badutela nahikoa kudeaketa-gaitasun eta autonomia, ebazpen honetan aipatu berdintasunerako jarduera-planak betetzeko behar diren antolamendu-aldaketak egiteko.

– Erantzukizunpeko adierazpena, eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adierazteko, eta laguntza hauen onuradun izateko, indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela adierazteko.

– Deialdi hau kudeatzen duen organoari emandako elkarreragingarritasun-baimena, hau da: administrazio eskudunak entitatearen nortasuna (hirugarren interesdunarena) eta zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoen betetzea, Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) buruzko datuak salbu, bide elektronikoen bitartez edo aukeran dauden baliabideen bitartez begiratzeko, egiaztatze edo frogatzeko baimena, betiere Administrazio Publikoak egiaztatze, kontrolatzeko eta ikuskatzeko izendatuta dituen ahalmenak eragotzi gabe.

2.– Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira.

a) I. eranskina, behar bezala bete, atal hauetan jasotako informazioa adieraziz:

– Dinamizatzaillearen izendapena.

– Zuzendaritzaren konpromisoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako lankidetzarakundearen aitortzea lortzeko buruzkoa.

– Eskatutako laguntzak eta jasotakoak, erakunde emaileak eta laguntzen zenbatekoa.

– Barneko lantaldearen osaera eta lantaldea osatzeko irizpideak.

b) II. eranskina, bidaltzen diren dokumentuen zerrenda.

c) Aholkularitza-entitate homologatuak laguntza teknikoari buruz egindako proposamena, 3. artikuluko h) atalean zehaztutakoari jarraiki.

d) Laguntzak kanpoan eta barruan ustez izango duen eraginari buruzko txostena.

e) Langile kopuruaren egiaztapena, Gizarte Segurantzaren kotizazio-orrien bidez (TC1 eta TC2 ereduak), eskabidearen aurreko hilekoak.

f) «Datuena alta/Hirugarren interesduna» inprimakia. Ez da bete behar, eskatzailea Eusko Jaurlaritzaren Hirugarren Erregistroan alta emanda badago, non eta inprimakian aipatzen diren datuak aldatu ez diren. Ebazpen honen 6.1 artikuluan azken atalean aipatzen den baimena ematen denean ere ez da bete behar. Inprimaki hori eskuratzeko helbidea: [http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/autorización/alta\\_terceros/es\\_7999/alta\\_terceros.html](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/autorización/alta_terceros/es_7999/alta_terceros.html).

g) Estatutuak eta eratzeko-akordioa.

h) Entitate eskatzaileak BEZaren zenbatekoa ezin duela berreskuratu egiaztatzen duen akordioa, dagokion foru ogasunak egina.

i) Ziurtagiri eguneratuak, gehien jota, diru-laguntza eskatu baino hiru hilabete lehenagokoak, Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzako Lurraldeko Diruzaintzak eginak, eskatzaileak zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak konplitututa dituela egiaztatzen dutenak, edo, salbuetsirik egonez gero, salbuespena egiaztatzen duen akordioa, ebazpen

honen 6.1 artikulua azken atalean aipatzen den elkarreragingarritasun-baimena ematen denean salbu.

j) Nortasunaren egiaztagiria, entitatearen IFZren kopiaren bidez, ebazpen honen 6.1 artikulua azken atalean aipatzen den elkarreragingarritasun-baimena ematen denean salbu.

k) Esleipen-irizpideetan oinarrituta, proposamena egoki baloratzeko beharrezkotzat jotzen diren agiri guztiak.

3.– Eranskinik izendaturik ez duen dokumentazioa bidaltzeko, jatorrizko dokumentazioa eskaneatuta eta bide elektronikoz izenpetua bidaltzea onartuko da, helbide honetan de <http://www.euskadi.net/misgestiones>.

4.– Aurretiaz aurkeztutako dokumentazioa ez da berriz aurkeztu beharko. Horretarako, noiz aurkeztu zen eta zein prozeduretan aurkeztu zen aipatu beharko da, II. eranskinean horretarako dagoen atalean.

5.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, edozein unetan, jatorrizko dokumentazioa entregatzeko eska dezake, kautotasuna egiaztatzeko.

7. artikulua.– Eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 6. artikuluan eskatutako agiriren bat falta badute, Emakundek falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari, eta horretarako, hamar eguneko epea emango dio jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Horrez gain, ohartarazten zaio eskatutakoa egin ezean eskaera ezetsi egingo dela, aurretiaz ebazpena eman ondoren, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan agindutakoari jarraiki (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

8. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

Hautaketa batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko kide hauek osatuko dute:

Presidentea: Idazkari nagusia.

Epaimahaikideak:

- Generoaren arloko Plangintza eta Ikerketaren arduraduna.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko teknikari bat.
- Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduraduna.
- Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.

Idazkaria: Aholkularitza Juridikoaren arduraduna izango da.

9. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Diru-laguntzak esleitzeko, Hautaketa Batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan, bakoitzari emandako puntuaren arabera:



A) Proposamenaren kalitatea. Gehienez 45 puntu:

– Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, egutegiari, metodologiari eta aurrekontuari dagokienez. Gehienez 15 puntu.

– Berrikuntzak eta proposamenaren eta erakunde-motaren arteko egokitasuna. Gehienez 15 puntu.

– Proposamena diagnostikorako eta planak egiteko metodologietara egokitzea. Gehienez 10 puntu.

– Proposamenaren kalitatea, osotasunean. Gehienez 5 puntu.

B) Lan-prozesuan Zuzendaritza inplikatzeko eta erakundeko denetarikoa hartzea. Gehienez 20 puntu.

– Erakundeak alor honetan duen ibilbidea. Gehienez 10 puntu.

– Lantaldearen konfigurazioa. Gehienez 10 puntu.

C) Eragin biderkatzailea. Gehienez 25 puntu.

– Lurralde-ezarpena. Gehienez 6 puntu.

– Enpresaren tamaina. Gehienez 6 puntu.

– Jarduera eremua /sektorea. Gehienez 6 puntu.

– Gizarte-eraginerako diseinatutako jarduerak. Gehienez 7 puntu.

D) Askotariko bereizkeria jasaten duten emakumeen behar espezifikoak kontuan hartzea. Gehienez 10 puntu.

2.– Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proposamenak atzera botako dira.

10. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu nahi den jardueraren kostuaren % 50 izango da, gehienez ere; eta onuradun bakoitzeko, 10.000 eurokoa, gehienez ere.

2.– Ehuneko berrogeita hamarraren muga ez zaie aplikatuko irabazi-asmorik gabeko entitateei, alegia: onurak titular edo partaideen artean banatu gabe, produkzioan edo ondasun- eta zerbitzu-banaketan lortutako irabaziak edo soberakinak entitateen xedeak betetzeko inbertitzen edo bideratzen dituztenei.

11. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Laguntzak bateragarriak izango dira helburu eta xede bererako ematen diren laguntza edo diru-laguntzekin, laguntzen izaera eta erakunde emailea edozein direla ere, baldin eta laguntza guztiak batuta egin beharreko ekintzaren guztirako kostua gainditzen ez bada, ez eta diruz lagunduko den jardueraren kostuaren % 50eko muga ere, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatzekoa denean.



## 12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Eskabideak Hautaketa Batzordeak ebaluatuko ditu, diru-laguntzak esleitzeko irizpideen arabera; ondoren, proposamena bidaliko dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari. Emakundeko zuzendariak ebazpen adierazia eta arrazoitua emango du. Ebazpen horrek amaiera emango dio lehiaketari eta diru-laguntza nori eman eta nori ukatu zaion adieraziko du. Ebazpena bide elektronikoz jakinaraziko zaie enpresa edo erakunde onuradunei, banan-banan. Emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

2.– Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilekoa izango da, gehienez ere, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera. Epe horretan enpresa edo entitate interesdunari ebazpenik jakinarazten ez bazaio, diru-laguntzarako eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

3.– Ebazpenean, erakunde onuradunen zerrenda jasoko da –diruz lagunduko diren enpresa eta erakundeak eta, bakoitzari emandako zenbatekoak jarrita–, eta horretaz gain, ordezeko erakundeen zerrenda ere jaso daiteke, onuradunen batek uko eginez gero, ordezekoengana jo ahal izateko. Erakunde horiek ordezkapena egiteko hurrenkeraren arabera zerrendatuko dira, diruz lagunduko diren proiektuak adieraziko dira eta, onuradunak uko eginez gero, ordezekoaren laguntzak izan lezakeen gehienezko zenbatekoa ere azalduko da; zenbateko hori sekula ez da izango uko egin duen onuradunari esleitutakoa baino handiagoa.

## 13. artikulua.– Enpresa edo erakunde onuradunen betebeharrak.

Ebazpen honetan arautzen diren diru-laguntzak jasotzen dituzten enpresa edo entitateek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan ezarritako betekizunak konplitu beharko dituzte, eta bereziki, honako hauek:

a) Emandako diru-laguntza onartu behar dute. Horrela, diru-laguntza eman zaiela jakinarazteko idazkia jaso eta hamabost eguneko epean enpresa edo entitate onuradunek diru-laguntzari beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu egin dutela esan nahiko du.

b) Diru-laguntza zertarako eman den, horretarakoxe erabili behar dute, non eta 15. artikuluan ezarritakoa aplikatzen ez den, eta diruz lagunduko diren jarduerak Emakundek noiznahi egiaztatzea onartu beharko dute.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, diru-laguntzaren inguruan eskatutako informazioa eman behar diete.

d) Onartutako proiektuaren hasierako baldintzak edo edukia aldatzeko, idatziz jakinarazi beharko dute, Erakundeko Zuzendaritzaren berriazko onespina beharrezkoa baita aldaketak egiteko.

e) Komunikazio guztietan, barnekoetan nahiz kanpokoetan, diagnostikoa eta planak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen finantziazioa dutela azaldu behar da. Horretarako, erakundearen marka erreproduzitu behar da publizitate-euskarrian, parte-hartze mailaren arabera dagokion tamainan, kokalekuan eta ikuskeran, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuarekin bat etorritz. Marka Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean eska daiteke. Logotipoa diagnostikoan eta planean jarri behar da, bai eta horiek egiteko prozesuan sortzen diren dokumentuetan ere, izan barnean jakinarazteko, izan kanpoan jakinarazteko.

f) Prozesuaren hasieran, diagnostikoa eta plana egiteko asmoa jakinarazi behar zaie langileei, eta prozesuaren amaieran, diagnostikoaren eta adostutako planaren emaitza nagusienak.

g) Proiektua gauzatu bitartean egindako agirietan eta bukaerako memoria eta txostenetan hizkera sexistarik ez dela erabili ziurtatu behar da.

h) Enpresek Emakunderi jakinarazi behar diote langileen zenbaketan eragina duen aldaketa oro –plantillan egindakoak–, berdintasun-planen alorreko mugez ondorioetarako.

14. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea eta ordaintzea.

1.– Jarduerak gauzatu ondoren eta jarduera horien ondorioz izandako gastu guztiak Emakundek estali ez dituenak ere bai, alegia, diru-laguntzaren zenbateko osoa justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza; horretarako, 2012ko abenduaren 31 baino lehen (egun hori barne), agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Egindako diagnostikoa.

b) Berdintasunerako plana.

c) Jasotako funts publikoak nola erabili diren justifikatzeko memoria. Egindako lan-prozesua eta lortutako helburuak deskribatuko dira, aurreikusitako egutegiaren arabera; halaber, sentsibilizazio-saioko edo saioretako edukiak, partaideak eta horiek saioei buruz egiten duten ebaluazioa.

d) Diruz lagundutako jardueren balantze ekonomikoa, IV. eranskinaren arabera, eta laguntza teknikoa egiaztatzen duen faktura. Fakturak edo froga-balio baliokidea duten agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak direnak edo eraginkortasun administratiboa dutenak: diruz lagundutako jardueri dagokienez, funtsak behar bezala erabili direla edo egindako gastua egiaztatzeko behar diren adina xehetasun eman behar da; agertzen den gastuaren data 2012ko abenduaren 31 izan behar da, gehien jota.

e) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lankidetzak aipatu dela egiaztatzen duen agiria, 13.e) artikuluan eskatutakoari jarraiki.

f) Prozesuaren hasieran nahiz amaieran, langileei prozesu horren helburuak eta emaitzak jakinarazi izanaren egiaztagiria, 13.f) artikuluan ezarritakoari jarraiki.

g) Laguntzaren barne eta kanpo eraginari buruzko aurretiazko txostenen aurreikusitako helburuen betetze-mailari buruzko txostena.

h) Hartzaileko 3.000 euro baino gehiago eman diren diru-laguntzetan, ziurtagiri eguneratuak, gehien jota, diru-laguntza eskatu baino hiru hil lehenagokoak, Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzako Lurraldeko Diruzaintzak eginak, eskatzaileak zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak konplututa dituela egiaztatzen dutenak, edo, salbuesirik egonez gero, salbuespena egiaztatzen duen agiria, ebazpen honen 6.1 artikulua azken atalean aipatzen den elkarreragingarritasun-baimena ematen denean salbu.

2.– Dokumentazio hori bidaltzeko, jatorrizko dokumentazioa eskaneatuta eta elektronikoki izenpetua bidaltzea onartuko da, helbide honetan:// [www.euskadi.net/mis\\_gestiones](http://www.euskadi.net/mis_gestiones).

3.– Ordaintzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, edozein unetan, jatorrizko dokumentazioa entregatzeko eska dezake, kautotasuna egiaztatzeko.

4.– Diruz lagundutako jardueraren behin betiko kostu osoa gutxitzen bada (diru-laguntza kalkulatzeko kontuan hartu zen kostuaren aldean) edo gastuaren egiaztagirien bidez justifikatzen

den zenbatekoa emandako laguntza baino txikiagoa bada, dagokion zati proportzionala kenduko da diru-laguntzaren zenbatekoan.

15. artikulua.– Diru-laguntza emateko inguruabarrak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako inguruabarren bat aldatzen bada, Emakundeko Zuzendaritzari jakinarazi behar zaio. Diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu egin daiteke, baldin eta diru-laguntza emateko kontuan izan diren inguruabarrak aldatu badira (betiere, diru-laguntzaren helburua bete bada) eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk aldi berean laguntzarik edo diru-laguntzarik eman badu.

2.– Aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa jasotzen denean, dokumentazioa aztertu eta ebaluatu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak, administrazio-bidea amaitutzat emango duen ebazpen baten bidez, emandako diru-laguntza aldatu eta/edo likidatu egingo du (kasu bakoitzaren arabera), eta behar izanez gero, emandako diru-laguntzen zenbatekoak egokituko ditu.

16. artikulua.– Ez-betetzeak.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horri dagozkion legezko interesak itzuli egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, dagozkion gainerako ekintzak gauzatuko dira.

17. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Ezarritako baldintzak edota betebeharrak betetzen ez direnean, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan agindutako prozedurari jarraituko zaio emandako diru-laguntza itzultzeko. Dekretu horrek hau ezartzen du:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak prozeduraren hasiera eta prozedura funtsatzeko arrazoiak jakinaraziko dizkio erakunde interesdunari, eta 15 egun balioduneko epea emango dio alegazioak aurkezteko.

b) Alegazioak jaso ondoren edo alegaziorik egin gabe epea amaitu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak amaitutzat joko du prozedura, ebazpen baten bidez. Ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenean baldintzak bete ez direla adierazten bada, galdutzat joko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta, beharrezkoa bada, jasotako zenbatekoak eta aplikatzekoak diren legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzultzeko aginduko da. Dirua hil biko epean itzuli beharko da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Borondatezko aldian itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin diezaion, aplikatzekoa den legezko araudian xedatutakoari jarraituz.

d) Aplikatzekoak diren arauak ez betetzeagatik diru-laguntzak itzultzeari buruz artikulua honetan araututako prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilekoa izango da, gehienez ere.

**AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, pertsona edo entitate interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaizkete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAAan argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 2a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

**I. ERANSKINA**  
**ENPRESA ETA ERAKUNDE PRIBATUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK,**  
**AHOLKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATATZEKO, EMAKUME ETA**  
**GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOAK ETA BERDINTASUN-PLANAK**  
**EGIN DITZATEN**

Izartxo batekin (\*) markatutako datuak nahitaezkoak dira

### KONPROMISOA

Nik, \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ erakundean \_\_\_\_\_ kargua dudala, hitz ematen dut aurrera jarraituko dudala diagnostikoa eta berdintasunerako plana egiteko hasiko lan-prozesuarekin, harik eta enpresa edo erakundea emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde bihurtu arte, 424/1994 Dekretuan ezarritako moduan. Horretarako, aitoren hori eskatutako dut, diru-laguntza esleitzeko ebazpena EHAAn argitaratu eta urte biren barruan.

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_

Izpta.:

### DINAMIZATZAILEAREN IZENDAPENA

Nik, \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ erakundean \_\_\_\_\_ kargua dudala, \_\_\_\_\_ (erakundean betetzen duen kargua) izendatzen dut diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko lan-prosezua dinamizatzeko arduradun.

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_

Izpta.:

## BARNEKO LAN-TALDEAREN OSAERA

Izen-abizenak	Postua

## TALDEA OSATZEKO IRIZPIDEAK

--

## LAGUNTZA OSAGARRIAK

Beste finantzazio-iturririk izan duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zeintzuk?	Emandako zenbatekoa	Eskatutako zenbatekoa
<b>Guztira</b>		

Beste laguntzarik eskatu duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zein erakunderi?	Eskatutako zenbatekoa	
<b>Guztira</b>		

**II. ERANSKINA - IGORTZEN DIREN DOKUMENTUAK**

	Igortzen diren dokumentuak
<input type="checkbox"/>	Eskabidea. I. eranskina.
<input type="checkbox"/>	Laguntza teknikorako proposamena.
<input type="checkbox"/>	Zuzendaritzaren konpromisoa. II. eranskina.
<input type="checkbox"/>	Laguntzak kanpoan eta barruan ustez izango duen eraginari buruzko txostena.
<input type="checkbox"/>	Barne-dinamizatzailearen izendapena. II. eranskina.
<input type="checkbox"/>	Enpresan zenbat langile dauden egiaztatzen duen agiria (TC1 eta TC2).
<input type="checkbox"/>	Barneko lantaldearen osaera eta irizpideak. II. eranskina.
<input type="checkbox"/>	Laguntza osagarriak. II. eranskina.
<input type="checkbox"/>	"Datuen alta/Hirugarren interesduna".
<input type="checkbox"/>	Estatutuak eta eratze-agiria.
<input type="checkbox"/>	Erakunde eskatzailea BEZaren zenbatekoa ezin duela berreskuratu adierazten duen egiaztagiria eguneratua.
<input type="checkbox"/>	Beste agiri batzuk. Zehaztu.

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)an

(Eskatzailearen edo taldearen pertsonen sinadura)



### III. ERANSKINA - BALANTZE EKONOMIKOA

Jarraian zehazten diren zenbatekoak BEZa kontutan hartu gabe adierazi behar dira.

Gastuak		Diru-sarrerak	
Aholkularitza-gastuak		Emakunde	
Beste batzuk		Beste erakunde batzuk	
		Propioak	
		Beste batzuk	
<b>Gastuak guztira</b>		<b>Diru-sarrerak guztira</b>	
<b>BEZa</b>		<b>BEZa</b>	

Balantzea: \_\_\_\_\_ euro

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)an

(Eskatzailearen edo taldearen pertsonen sinadura)